

ZERAINGO HERRI BATZARRA

Txosten honek 2018ko azaroaren 25ean egindako Herri Batzarrean Udalak emandako informazioa jasotzen du.



ZERAINGO HERRI BATZARRA	1
1. Sarrera	2
2. Udal Kudeaketa	2
Ordezkaritza bilerak	2
Elkarbizitza prozesuaren emaitzak	3
Turismoari buruzko parte-hartze prozesua	4
Hirugarren urteko balorazioaren emaitzak	5
Cistella-Zerain senidetzea	8
Webgune berria	11
2018ko kontuen itxiera: aurreikuspena	13
3. Batzordeen berri	15
3.1 Herri Bizitza	15
3.2 Zerbitzuak, azpiegiturak, ingurumena eta hirigintza	22
3.3 Tokiko Garapena	26

1. Sarrera

- Ongietorria eta eskerrak eman ondoren bilerak bi atal izango dituela azaldu dugu: **informazioa eman** eta **elkarriketa**. Bileraren iraupena ordu eta erdikoa izango da, ohi moduan, eguerdiko 13:00 etan amaitzeko.
- Agintaldiko hamargarren Herri Batzarra da, aurtengo hirugarrena.
- Bilera hau baliatuko dugu batez ere 2018ko uztailetik gaur egunera arte, bost hilean landutakoaren berri emateko. Horrez gain eta ekaineko batzarrean herritar batek hala eskatuta, Zerain Dezagun Fundazioaren datuak emango ditugu.
- Informazioarekin egingo dugun txostena ohi bezala laster jasoko duzue buzoietan.

2. Udal Kudeaketa

2.1 Ordezkaritza bilerak

Ekainetik azaro bukaera bitartean udala ordezkatzuz egin ditugun bileren berri eman dugu:

ERAKUNDEA	BILERA KOPURUA	ORDEZKARIAK
Iberdrola	Bilera.....1	Arantza, Ana
Etxebizitza Saila	Bilera.....1	Amaia, Arantza
Ur Kontsorzioa	Batzar Nagusia.....1	Amaia
Partzoneria	Junta.....3	Aloña
Sasieta	Batzarra.....2	Amaia
GFA Parte hartzea	Herri txikien lantaldea.....1	Arantza
GFA turismoa Burdin bidea	Junta.....1	Aitziber
Berdinbidean	Bilera.....1	Udal taldea
Goitur	Bilera.....1	Udal taldea
Guztira iraila-azaroa	12	



Uda tartean egon dela kontuan hartuta, epealdi honetan ez da horrenbeste bilerarik egon udalez gaindiko erakundeek deituta.

2.2 Elkarbizitza prozesuaren emaitzak

Prozesua 2017ko udan hasi zen Zeraingo Udalaren inizatibaz eta 2018an amaitu da. Hiru bilera ireki egin ziren uda partean eta hirugarrenean erabaki zen bitartekaritza lana kanpoko norbaitek egitea eta lan horren ardura Aztikerrek izan du.

Aztikerrek proposatutako prozesua martxan jarri da, hogeit hamar pertsona elkarriketatu dira eta ondoren, elkarrekin beste fase bat garatzeko baldintzarik dagoen aztertu da.

Lehen ondorioa da gatazka oraindik ez dela baretu eta ondorioz ez dagoela baldintzarik hurrengo urratsa egiteko. Hona hemen urrats horretan landu nahi ziren ekintzak:

- Hauteskunde/zerrenda sistema adostu/berrikusi/hobetu.
- Herri/udal funtzionamendua adostu.
- Gatazkaren intentsitatea behatu.

Aztikerreko teknikariaren esanetan gatazka dispartuta dago. Errudun edo irabazle eskema batekin egoera kudeatzeak, soilik gatazka gehiago handitzea dakar. Bere gomendioa da gatazka ez areagotzea; asko neurtzea eta ez elikatzea. Oso garrantzitsua da “besteak” errekonozitzea, banaka eta kolektiboki.

Bere ustez garatu daitezke herrian sinesten diren proiektuak: inoren kontra egin gabe, zerbaiten alde eginez. Jakin behar da gatazkak ez direla txarrak, baina intentsitatea bai.

Gaur egun zerrenda bakarra egitea ezinezkoa da. Zerainean gertatzen dena botere harreman bat da, bi talde indartsuen artekoa; ez da siglen baitako borroka bat.

Udalaren balorazioa:

Saiakera garrantzitsua egin da. Eskerrak eman nahi dizkie Zeraingo Udalak zuzenean parte hartu duten guztiei.



Egindako lanketak ez ditu fruituak eman, bereziki ez da lortu “tartearen dagoen jendea” hurbiltzea, eta hori lortzea zen helburuetako bat. Bestalde, zuzenenean parte hartu dutenen artean prozesuak jendea hurbildu ordez, urrundu egin du.

Gauzak horrela, Zeraingo Udalak aurrera begira, Aztikerrek proposatutako gomendioak kontuan hartuko ditu.

2.3 Turismoari buruzko parte-hartze prozesua

Herri programan jasota dago turismoak gure herrian duen garrantzia dela eta, hausnarketa egin behar dela turismoa indartzeko eta iraunkorra izan dadin lortzeko. Lanketa hori egiteko ondorengo eskema zehaztu da:

1. Urratsa: aurrelanak

Aurrelanak dagoeneko eginak daude. EHUko eta UEUko irakasle den Galder Guenagak egingo ditu aholkulari lanak prozesuan zehar. Berarekin dagoeneko prozesuaren aurrelanean egokitu dugu eta berak prestatuko du datuen txostena. Aurrelanetan ere prozesua aurkeztu dugu herriko hiru batzordeetan, Goiturreri, eta gaur herritarrei herri batzarraren bidez.

2. Urratsa: diagnostikoa

Garrantzitsua da lehenik diagnostiko ahalik eta zehatzena egitea. Horregatik bi ikuspegi izango ditu diagnostikoak, kuantitatiboa eta kualitatiboa:

- Kuantitatiboa:
 - Datuak eskuratu
 - Gaur egungo argazkia eta eboluzioa
 - Krisi aurrekoak eta ondorengo datuak
 - Turismo bulegoaren datuak
 - Goierriko datuak
 - Konparaketa beste herri batekin
- Kualitatiboa:
 - Herritarren ekarpenak (kolektiboak)
 - 3 batzordeetan saio monografikoak:
 - Tokiko Garapena
 - Herri bizitza
 - Azpiegitura, zerbitzuak, hirigintza eta ingurumena



- Azterketa: kanpo azterketa eta barne azterketa, aukerak eta mehatxuak eta indarguneak eta ahuleziak, AMIAren bidez.
- Herritar guztiei bidaliko zaien galdetegia kontrastatu eta osatu.

Herritarren ekarpenak (banakakoak)

15 urte artekoak saio baten bidez.

16tik gorakoak landutako informazioaren sintesiarekin batera galdetegia jasoko dute etxeetan betetzeko.

Diagnostikoa osatu eta aurrera begirako proposamenak jasoko dira txostenean.

3. Urratsa: proposamena osatu

Beste esperientziak ezagutzeko ahalegina egingo dugu Goituraren bidez eta bertara joanez.

3 batzordeetan aurrera begirako proposamenak osatuko dira bigarren saio batean.

2.4 Hirugarren urteko balorazioaren emaitzak

Aurten ere herritarrek udalaren hirugarren urtea zuzenean baloratzeko aukera izan dute udan zehar egin dugun balorazioan. Herrian erroldatuta dauden 16 urtetik gorako zeraindar guztiak jaso dute inkesta etxeetan eta jarraian emaitzak aurkezten ditugu.

Denera 103 pertsonak hartu dute parte balorazioan. Ikus dezakegu genero aldetik nahiko orekatuta dagoela parte-hartzea. Adin tarteari kontuan izanik, gazteak dira gutxien parte hartu dutenak eta 31-50 tarteko pertsonak berriz gehien.


Adina	Gizonezkoa	Emakumezkoa	Ez dakigu	DENERA	%
16-30	6	6	1	13	13
31-50	16	16	1	33	32
51-65	13	16		29	28
65+	15	10	2	27	26
Ez dakigu	1			1	1
DENERA	51	48	4	103	100
%	49	47	4	100	


Esan beharra daukagu 103 hauetatik, 44 pertsonen (%43) galdetegi berdin-berdin bete dutela. Gainera denek proposamen berdina idatzi dute: *“Informazio gardenagoa behar degu, Gureak Marketing-ek egindako balorazioa publikoa izatea eskatzen dut.”* Ordea, beste 59 pertsonen (%57), galdetegiko galdera, ekintza eta proiektuaren arabera baloratu dute (positiboki nahiz negatiboki).

Oharra: Gureak Marketing-ek ez du baloraziorik egiten. Inkesten banaketa eta jasotze gestioa bakarrik egiten du, herritar bakoitzak behin ematen duela iritzia bermatuz, Ondoren txostena udalak prestatzen du.

Datuak ikusita udalak egiten duen irakurketa honakoa da: %43 horrek balorazio honekin udalak egiten duenarekin eta orokorrean udalarekin ados ez dagoela erakutsi nahi du. Hori argi ikusten da emaitzetan eta udalak herrian hori pentsatzen duen jendea dagoela kontuan izango du.

Hala ere, tresna hau hurrengo urteko ekintzak eta proiektuak hobetzeko erabiltzen du udalak eta horretarako ez du balio handirik blokean egindako talde honen balorazioak, ez digulako esaten nola hobetu ekintzak edo zein ekintza gustatzen zaizkien herritarrei. Desadostasuna besterik ez digu adierazten. Ondorengo grafikoetan jasota dago inkesta guztietako informazioa:






Ondoren jaso ditugu inkesta modu naturalean, hau da bakoitzak pentsatzen duenaren arabera, bete duten %57aren iritziak:

Hauetatik % 84-k udal taldearengana jo du eta hauetatik %86-k oso ondo/bikain baloratzen du.

- Udaleko informazio daukatela uste dute %73-k (oso ondo/bikain). Informazio iturriak:
 - Txosten idatziaren bidez (%91)
 - Xagu Artearen bidez (%86)
 - Ahoz aho (%63)
- Hauetatik erdiak bileretan parte hartu du modu batean edo bestean.

Ekintzak eta proiektuak baloratzean ikusten dugu orotara nahiko ondo baloratu direla ekintzak, puntuaziorik altuenarekin emakumeen eguna eta udaberriko Kulturaldia eta puntuaziorik baxuenarekin Mutiloara jaitsiera.

Proiektuak aztertuz, Frontoiaren teilatua izan da ondoen baloratu dena eta Aizpeako meatzetan egindako lanak okerren baloratua izan dena.



Herritarren aldetik hainbat proposamen jaso dira hurrengo urtean burutzeko. Proposamen hauek udalean landuko ditugu:

- “Farolak jarri Irukate eta Segurako oinezko bidean”.
- “Goiko barrioko udek aber bideratzeko aleginek egiten dezuen, denak beko barriora etortzen die.”
- “Elizako kanpaiak beranduago jotzea goizean (9tan, 8etan partez)”.
- “Akzionista bihurtu beharko ginatke etxebizitzaren gora-beran.”
- “Herriko jaiak irailera pasatu eta jai ez-erlijiosoak bihurtu”.

2.5 Cistella-Zerain senidetzea

Irailak 15 eta 16 asteburuan Cistellatik 44 herritar etorri ziren Zerain ezagutzera. Goizean ongi-etorria egin zitzaizen plazan eta eguneko plana azaldu zitzaizen. Ondoren, 11 familia Zeraindarren etxean bazkaldu zuten eta gazteek Mandioan. Arratsaldean auzolana egin genuen elkarrekin

azokako postuak muntatzeko eta sagarrak biltzeko. Bukatzeko afaria egin zen Oiharte sagardotegian.

Hurrengo egunean gosaria Ostatun eta bisita izan zuten Aizpeako mehatzetara. Bisitarekin amaitzeko azoka ekologikoa bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten.



Cistellakoak oso motibatuta joan ziren eta bueltako bidaian hasi ziren zeraindarrei harrera egiteko plana prestatzen. Cistellan pintxo potea egin dute eta bisita konpartitu dute gainerako herritarrekin. Diaporama bat osatu dute gainera. Gonbitea luzatu digute bertara joateko. Data hauek kontrastatzen ari dira: **2019ko martxoak 16-17-18-19. Bidai hau antolatzeko bilera: abenduaren 27an, 18:30etan Kultur Etxean.**





2.6 Webgune berria

Udala herriko webgunea berritzen ari da, alde batetik herritarren parte-hartzea bultzatzeko aproposagoa izateko eta bestetik kanpora begira Zeraingo irudia eguneratzeko. Webgunearen bitartez hainbat tramite online egiteko aukera izango da, baita parte-hartze prozesuak martxan jartzeko. Diru laguntza lortu da lanketa hau egiteko.

Webgunerako aukeratutako logoa ondorengoa izan da.




Gainera, herriko mapa interaktibo bat egingo da bertako zerbitzu guztiak kokatzeko: sagardotegiak, tabernak, nekazalturismoak... (irudi guztiak lehen bertsioan daude, oraindik aldatzeko gauzak daude)



Webguneko lehen bertsioa egin dute egileek, oraindik gauza asko aldatzeko daude, baina garrantzitsuena webguneak bi zati izango dituela da: kanpotik etorritakoentzat herriko zerbitzuak agertuko dira eta bertakoentzat tramiteak eta beste hainbat gai garrantzitsu (argazkia ideia bat egiteko da, ez da hori izango noski, Mutiloa delako).



Zerbitzuak horrela agertuko lirateke mapan:



2.7 2018ko kontuen itxiera: aurreikuspena

Aurreikuspenen arabera, urtea ondo bukatuko dugu.

GASTUAK	2018			
	AURREKONTUA	URRIA ARTE	% AURREKONTUA	URRIA ARTE
MAILEGUAK	8.600,00 €	8.059,44 €	1,98%	1,85%
UDALEKO LANGILEEN SOLDATA	147.823,00 €	102.668,56 €	33,96%	23,58%
HIRIGINTZA	10.000,00 €	10.001,00 €	2,30%	2,30%
OBRAK eta MANTENIMENDUAK	17.500,00 €	15.942,87 €	4,02%	3,66%
UR-ARGINDARRA-BEROGAILUA-HILERRIA	15.200,00 €	11.056,14 €	3,49%	2,54%
HONDAKINAK BATU, KUDEATU	21.164,00 €	15.240,06 €	4,86%	3,50%
ONGIZATEA + OSASUNA+JUBILATUEK	4.500,00 €	2.062,50 €	1,03%	0,47%
HEZKUNTZA PROIEKTUA	10.000,00 €	4.644,32 €	2,30%	1,07%
KULTURAREN SUSTAPENA ETA JAIK	13.150,00 €	12.316,42 €	3,02%	2,83%
EUSKERA	10.300,00 €	11.156,80 €	2,37%	2,56%
EKINTZA SOZIO-KULTURALAK	12.100,00 €	6.915,20 €	2,78%	1,59%
TURISMOA	31.200,00 €	26.459,31 €	7,17%	6,08%
ADMINISTRATZIO OROKORRA	34.800,00 €	20.473,58 €	7,99%	4,70%
GASTU FINKOAK	336.337,00 €	246.996,20 €	77,26%	56,74%
BASERRI BIDEAK	32.322,00 €	31.282,21 €	7,42%	7,19%
BIODIBERSITATEA	27.000,00 €	1.124,74 €	6,20%	0,26%
AUZOEEN INBERTSIOAK	6.000,00 €	2.768,08 €	1,38%	0,64%
ETXEBIZITZA SOZIALAK : AURREPROIEKTUA	33.684,00 €	31.250,95 €	7,74%	7,18%
GASTU ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK)	99.006,00 €	66.425,98 €	22,74%	15,26%
DENERA	435.343,00 €	313.422,18 €	100,00%	71,99%

SARRERAK	2018			
	AURREKONTUA	URRIA ARTE	AURREKONTUA	URRIA ARTE
			%	%
BILGAJUEI -ONDASUNAK	70.750,00 €	66.676,99 €	16,25%	15,32%
OBRAKO ZERGAK	7.000,00 €	3.072,27 €	1,61%	0,71%
TASAK (ZABORRA-FRONTOKIA)	27.250,00 €	20.062,53 €	6,26%	4,61%
FORU FUNTSA eta BESTE BATZUK	250.543,00 €	185.393,91 €	57,55%	42,59%
MANDIO eta OSTATUKO RENTAK	6.800,00 €	4.876,25 €	1,56%	1,12%
SARRERA FINKOAK	362.343,00 €	280.081,95 €	83,23%	64,34%
E.J.: MINATAKO DIRULAGUNTZA	- €	25.867,33 €	0,00%	5,94%
E.J.: EUSKERA		2.500,00 €	0,00%	0,57%
GFA:EUSKERA			0,00%	0,00%
E.J.: BIODIBERSITATEA	22.000,00 €	10.782,50 €	5,05%	2,48%
GFA: PARTEHARTZEA			0,00%	0,00%
GFA: BASERRI BIDEAK	27.000,00 €	- €	6,20%	0,00%
E.J.: ETXEBIZITZAK	24.000,00 €	24.000,00 €	5,51%	5,51%
SARRERA ALDAGARRIAK (DIRULAGUNTZAK)	73.000,00 €	63.149,83 €	16,77%	14,51%
DENERA	435.343,00 €	343.231,78 €	100,00%	78,84%

3. Batzordeen berri

3.1 Herri Bizitza

Herri bizitza batzordeak-Oa kultur elkarteak ekaina amaieratik gaur arte antolatu dituen ekintzen aipamena eta diru kontuen berri emango zaizue.

- Festen egitarauaren eta urtekariko azalen lehiaketa



10 (2017an 3 lan) lan heldutan urtekarirako (Izar Foroni Ruiz de Larrinagaren lana irabazle) eta 23 (2017an 5 lan) lan haurretan festen egitarauaren azalerako (Lur Elortza Altunaren lana irabazle).

Aukeraketa egiteko bozketan 45 lagun inguruk parte hartu zuten. Sari bana jaso zuten irabazleek eta parte-hartzaile guztiek aipamena. Diru kontuak:

2018ko AZALAREN LEIHAKETA			
	IRTEERAK	SARRERAK	EMAITZAK
KARTULINAK	9,50 €		
PERGAMINOAK	4,50 €		
FESTEN EGITARAUAREN IRABAZLEAREN SARIA (Margoak eta eskulanak)	49,00 €		
URTEKARIAREN AZALAREAN IRABAZLEAREN SARIA (Bi lagunentzat afaria)	50,00 €		
	113,00 €	0,00 €	-113,00 €

- **San Juan bezpera**

Urtero bezala, haurren dantza emanaldia izan zen, Uharka abesbatzaren saioa eta ondoren herriko gazte eta umeek antortxeekin sua piztu zuten. Ondoren afari merienda eta festen egitarau eta urtekariaren azaleko lehiaketako bozketa eta sari banaketa izan zen.



2018ko SAN JUAN BEZPERA			
	IRTEERAK	SARRERAK	EMAITZAK
ANTORTXAK	49,60 €		
OSTATUKO TORTILA...	85,00 €		
MANDIOKO TORTILA...	110,12 €		
SAN JOAN ARBOLA JARTZEA ETA KENTZEA (LAKIOLA)	108,90 €		
EROSKETAK AFARI-MERIENDA	46,87 €		
	400,49 €	0,00 €	-400,49 €

- **Jubilatu irteera**

Uztailean izan zen, aurten Bizkai aldean izan ziren, Zeberio herrian. Bertako Errementari museo berria ikusi zuten eta ondoren herriko ostatuan bazkaria izan zuten.

- **Euskarabentura**

Uztailean 16an Zeraina iritsi ziren Euskarabenturako gazteak, hilabete osoa Euskal Herriko herri ezberdinetan ibili ziren eta egun horretan Zeraina iritsi ziren eta afari prestatu eta elkarrekin afaldu genuen.

Oso gustura eta eskertuta joan ziren Euskarabenturako gazteak Zerainen izan zuten harreraren ondorioz.



- **2018ko Herriko festak**



Abuztuak 14: Urteroko moduan joan dira festak; lehen egunean umeen eguna, ondoren pregoia herriko emakumeen eskutik egin zen eta adin ezberdineko neska eta emakumeek irakurri zuten. Sagardo dastaketan lehengai guztiak bukatu ziren, txekorra ere bai, eta iluntzean Gau Argi taldearekin dantzako giro polita sortu zen. Iluntzerako autobus zerbitzua jarri zen Goierriko herritatik jendea etortzeko.

Abuztuak 15: Goizeko ekintzak urteroko moduan, txakolin dastatzea eta Lumagorriko hegalekin eta arratsaldean herri kirol saioa izan genuen. Iluntzean gazteen txanda afari eta mozorrotuta.

Abuztuak 16: Goizean herriko artzainen gazta dastatzea eta iluntzean herri afaria bertsolariekin. Aurten frontoian egin zen eta afal ondoren giro polita sortu zen musikarekin.

Festen diru kontuak ondorengoak izan dira:

ABUZTUAK 14, asteartea	IRTEERAK	SARRERAK	EMAITZAK
SANZ ATRAKZIOAK (puzgarriak...)	880,00 €		
HAURREN ARRATSALDEKO GOXOKI ZORROAK	80,00 €		
SAGARDO DASTAKETAKO SAGARDOAK	360,00 €		
SAGARDO BASOAK		1.356,00 €	
TXEKORRA	1.466,00 €		
TXEKOR PINTXOAK		1.267,50 €	
ANBURGESA BEGETALAK (ONDARRE)	44,80 €		
ANBURGESA BEGETALAK		18,00 €	
FESTA GUZTIRAKO OGIAK	111,00 €		
TXEKOR DASTAKETAKO GAZTAIAK	214,24 €		
GAZTA PINTXOAK		399,00 €	
GAU ARGi musika taldea	810,70 €		

ABUZTUAK 15, asteazkena	IRTEERAK	SARRERAK	EMAITZAK
2 TXISTULARI	300,00 €		
TXISTULARIAREN HAMAIKETAKOA	0,00 €		
BOLATEKO SARIAK DIRUTAN	550,00 €		
BOLATEKO SARIAK SASKIA	59,12 €		
TXAKOLINAK	777,21 €		
TXAKOLIN BASOAK		216,00 €	
PILOTA TXAPELKETAKO SARIA -BOST ESKU PILOTA	93,90 €		
3 AIZKOLARIAK + 1 HARRIASOTZAILEA + 2 INGUDEA	750,00 €		
AIZKORARAKO EGURRA	120,00 €		
ELUSTONDO ANAI-ARREBAK	550,00 €		

ABUZTUAK 16, osteguna	IRTEERAK	SARRERAK	EMAITZAK
HERRIKO ARTZAINEN GAZTAK	252,93 €		
ELIZAGOIEN AIZPAK	450,00 €		
2 BERTSOLARIAK + AFARIA	520,00 €		
GASTU OROKORRAK			
BARRAKO EDARIAK	1.500,61 €		
EUSKAL HERRIA (platerak, mantelak...)	560,44 €		
EGITARAJU ETA KARTELAK	502,15 €		
SEGURAKO ZAHAR ETXERAKO PASTEL ETA TXANPAINAK (5 dozena pastelxo eta 5 txanpain botila)	98,00 €		
GOIERRI TB PUBLIZITATEA	769,56 €		
ARRATE IRRATIA PUBLIZITATEA	205,70 €		
BARRAKO 2 KAXA SAGARDO OTATZA	32,00 €		
BARRAKO 2 KAXA SAGARDO OIHARTE	40,00 €		
FESTETAKO EMAKUMEENTZAKO NIDIAK	1.168,37 €		
TXORIKO PINTXOAK ONDARRE	101,69 €		
2 ZAKU IKATZ	41,02 €		
GAUZA TXORIK (mojotutako osagirik eta...)	136,94 €		
TOKA UTZI DIGUNARI	sagardo eta txakolina		
SARRERA OROKORRAK			
BARRAN ATERATAKOA (1390 euro kanbiotakoak Oar jarrita)		3.113,95 €	
OSTATU TABERNA		50,00 €	
OSTATU TABERNA		Txistularin hamaiketakoa	
ZERAIN PAISAJA KULTURALA		21,53 €	
OTATZA SAGARDOTEGIA		50,00 €	
OTATZA SAGARDOTEGIA		4 Kaxa sagardo	
OIHARTE SAGARDOTEGIA		Gazte alariko barrikotea	
BAI REFOMAS		50 €	
SAN JOSE HESTEBETEAK		Ontzietako lotzak	
LUMAGORRI		200 hegal	
ITURRIOZ		150,00 €	
AIZKORPE ELEKTRIKARIK		50,00 €	
ZERAIN DEZAGUN FUNDAZIOAK AZOKA EKOLOGIKO EDARIENSATIK		119,16 €	
	13.546,38 €	6.861,14 €	-6.685,24 €

Laburpena:

Irteerak → 13.546,38 €

Sarrerak → 6.811,14 €

Ondorioz → 6.735,24 €

8000 €-ko aurrekontua onartuta genuen udalean festetarako, beraz 1000 € beste partida batzuetara pasa ditugu.

(2015: gastua 16.062,47 € - sarrera 5.038,98 €)

(2016: gastua 10.152,62 € - sarrera 3.688,7 €)

(2017: gastua 10.426,77 € - sarrera 5.106,68 €)

● Jubilatuen eguna

Urriaren 21ean ospatu genuen eta gustura pasa zuten eguna jubilatuek; meza eta ondoren bazkaria Beñat Gaztelumendi eta Oihana Iguaran bertsolariek lagunduta.



- **Ikastaroak**

Aurten ere ikastaro batzuk martxan jarri dira eta edonorentzat izen emateko aukera irekia da, nahiz eta ikastaroak hasita egon.

- **Yoga**, asteartetan 16.30- 18.00, Kultur Etxean.
- **Zumba**, ostegunetan, 19.30- 20.30 Kultur Etxean.
- **Euskara**; astelehen, asteazken eta ostiraletan 10.00-12.00 Seguran izaten dituzte, aurten bi herritar zeudelako AEK-ko ikastaroekin jarraitzeko asmotan.
- Gaztetxoek ere **soinu txikia** ikasten jarraitzen dute asteen bi egunetan Martin irakaslearekin, eta aurten Tobera musika eskolak ere asteen bi eguerditan **musika eskolak** ematen ditu Kultur Etxeko liburutegian.

Iaz bezala, ikastaro guzti hauek Mutiloarrei jakinaraziko zaizkie eta Mutiloarrek ere antolatu dituztenak Zerainen jakinaraziko dizkigute, aukera gehiago izateko bi herrietako herritarrek.



- **Azaroa eta Abenduko ekintzak**

- Azaroak 25 iluntzean: Emakumeen kontrako genero indarkeriaren nazioarteko eguna izan zen, eta hori dela eta, arratsaldeko 18.00etan Kultur Etxean Nagore Laffageren inguruko dokumentalaren emanaldia izan genuen.
- Azaroaren 23tik Abenduaren 3ra Euskaraldia ekimena ospatu da Euskal Herri osoan, bere helburua Euskararen erabilera areagotzea eta horretarako bi rol prestatu dira; Ahobizi eta Belarriprest.
- Abenduaren 3an, astelehena, Euskeraren egunean, ekintza ezberdinak izan ziren herrian. Arratsaldeko 18.00etan ARALAR dokumentalaren aurkezpena eta emanaldia izan genuen dokumentalaren egileen eskutik.
- **2018ko Gabonak;**
 - 24 Egunean kantu eskea.
 - 24 iluntzean Olentzeroren etorrera.
 - 2018ko Urtekaria herritar guztientzat.
- **2018 urte hasieran OA kultur elkarteko urteko batzarra**

HERRI BIZITZA BATZORDEKO BILERAK IREKIAK DIRA ETA HILEAN AZKEN ASTEAZKENETAN IZATEN DIRA 18.30EAN UDALETXEAN.



Azken Batzarretik bi berri nagusi ditugu proiektu honen inguruan:

Lehenengoa da FIARE banka etikoak mailegua onartu duela. Horren aurretik proiektuaren balorazio soziala egin digute, ardura Ana Belen Juaristi zarauztarrak izan duelarik, eta emaitza oso positiboa izan da.

Bigarrena da Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin batzartu garela proiektuak izan dituen aurrera urratsak azaltzeko. Bilera horretan adierazi digute praktikan proiektua beraientzat esperientzia pilotu bat dela eta nahiko luketela etorkizun hurbilean beste herri txikietan ere horrelako inizatibak martxan jartzea. Jaurlaritzako Etxebizitza Saileko arduradun politiko eta teknikoek zoriondu egin dute Zeraingo udala proiektuarengatik.



Bukatzeko zuzenketa bat egin nahi dugu:

Ekaineko batzarreko txostenean, etxebizitzaren proiektuari buruz dio:
“proiektu honen kontra alegazio bat aurkeztu da”

Honela geratuko da zuzendu ondoren:

“proiektu honetan egin den Udala eta Fundazioaren artean egindako hitzarmenaren aurkako alegazio bat aurkeztu da”.

- **Mehatzetako labeak**

Aurreko batzarrean aipatu genuen 2018ko Fomentoko deialdian aurkezteko eskaera berria lantzen ari ginela, eta dagoeneko aurkeztuta dago proposamena.

Ejekuzioari dagokionez 2019an eta 2020an egitekoa izango da onartua baldin bada.

Proiektuaren aurrekontua guztira 725.325 €koa da. Udalak % 10a jarri beharko luke. Jaurilaritzak dagoeneko 77.000€ onartu dizkigu bere deialdian eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2019ko deialdian eskaera egingo dugu erakunde honek ere bere ekarpena egin dezan.

- **Errekaldeko saneamendua**

Zeraingo Udalak lortu du egiteko geratu zen zatia Gipuzkoako Foru Aldundiko plangintzan onartzea. Beraz, ia hamar urte zain egon den proiektua aurrera doa.

Uztailean lehen bilera egin genuen Laiotz Lasustegi eta Errekaldeko auzotarrekin. Bertan parte hartu zuten ere Mutiloako udal ordezkariak eta herritarrak.

Kontuan hartu behar da proiektu hau Mutiloako saneamendu azpiegiturarekin lotuko dela. Ingeniaritza enpresa batek landu du proiektua uztaile-urria bitartean eta proiektuaren exekuzioa 2019an izango da.

- **Elurra egiten duenean herria garbitzeko ordenantza**



Batzordean gaia lantzen hasi gara eta lehen urratsa izan da lan hori egiteko ardura dutenekin bilera egitea.

Ondoren zirriborroa landuko dugu eta herritarren ekarpenak jasoko ditugu. Helburua da ordenantza onartu eta aplikatzen hastea negu honetan bertan.

- **Barbari eta Aizpeako partaidetza aurrekontua**

Auzoetan dauden beharrei erantzuteko asmoarekin aurrekontuan partida bat dago aurten ere auzoetan hobekuntzak egiteko. Bertako herritarrekin landu ondoren, ondoren aipatzen diren hobekuntzak egingo dira:

- BARBARI AUZOAN: Argiteria jarriko da auzoan, baserri inguruetan eta Oporlekun. Udalak ordainduko du kontsumoa.
- AIZPEA AUZOA: Ubide batzuk garbituko dira, ura bere bidetik bideratzeko.

- **Basoko pistak**

Lurjabeek proposatuta, diru laguntza eskatu da GFAan baso pista bat konpontzeko Barbari auzoan eta diru laguntza onartu dute:

- 8.309,77 € pistako lanak egiteko
- 192,00 € txostena egiteko
- 8.501,77 € GUZTIRA

Bederatzi hilabeteko epea dago lanak egiteko eta basoen lurjabeekin dena antolatzeke bilera batera deituko zaie urtarrilean.

- **Sare elektriko berria**

Barbaritik Larraondora sare elektriko berria proiektatu du Iberdrolak Txirbil aroztegiari energia hornitzeko helburuarekin. Batzordean hala eskatuta, Udalak proiektuaren inguruko informazioa eskatu du GFAn eta Iberdrolan uztailean. Udala saiatu da sare berria Antxaputxutik bideratzen, Barbaritik joan beharrean, baina arrazoi teknikoengatik ezinezkoa dela esan digute. Hasiera horretan lurjabe guztiek beharrezkoak diren baimenak sinatu zituzten. Geroztik ordea, Iberdrolak ibilbidea aldatu du eta desadostasuna sortu da aldaketa horrekin. Haiek esandakoaren arabera, ibilbidea aldatzeko arrazoia izan da ondarea dagoela lehen ibilbidean eta horregatik ezin dela bertatik pasatu.

Udalak gestioak egin ditu GFako Ondarearekin eta Iberdrolarekin.

GFaren Kultura arlotik esan dute ez dagoela arazorik ondarearen aldetik, lehendabizi aukeratutako eta sinadura guztiak dituen lehen ibilbidea egiteko. Hori jakinarazi zaio Iberdrolari ere. Iberdrolak oraindik ez du erabaki zer egin.

- **Plazako piboteak**

Dakizuenez plazan oinezkoei lehentasuna emateko hiru pibote jarri ziren plaza sarreran. Kotxe batek piboteen kontra jo zuen eta ondoren aseguru etxeak udalaren aurkako salaketa bat jarri zuen. Duela gutxi izan da epaiketa eta epaia udalaren aldekoa izan denez, udalak ez du kargurik izango gai honengatik.

3.3 Tokiko Garapena

Azken batzarretik bilera bakarra izan dugu. Landu diren gaiak ondorengoak izan dira:

- **Azoka ekologikoa**

Orokorrean dena ondo joan zen, urtero bezala. Zeraingo produktuak izeneko postuan herriko produktuak saldu ziren. Gainera Biolurrek 25 urte bete dituela ospatu zen eta oroigarri bat eman zitzaien.







AZOKA EKOLOGIKOA 2018	SARRERAK	IRTEERAK
DIRULAGUNTZA ZERAINGO UDALA	2.000,00 €	
DIRULAGUNTZA OSTATU	150,00 €	
DIRULAGUNTZA OTATZA	50,00 €	
DIRULAGUNTZA ORKLI	700,00 €	
DIRULAGUNTZA AMPO	200,00 €	
DIRULAGUNTZA IRIZAR	300,00 €	
DIRULAGUNTZA OIHARTE 4 KUTXA SAGARDOA		
DIRULAGUNTZA OTATZA 4 KUTXA SAGARDOA		
LUMAGORRI 300 HEGOAK		
EUSKABER ARRUTZA 40 DOZENA		
DIRULAGUNTZA GOIMEN KARTELAK ETA DIPTIKOAK		
BARRAKO DIRUA	1.961,15 €	
MUZTIOKO DIRUA	155,00 €	
ARKUME BAT		60,00 €
POSTUAK -ADRIAN BIOLUR		1.210,00 €
TRANSP.LAKIOLA POSTUAK		150,00 €
ESATARIA IONAN		100,00 €
TALLERRAK GALLETA-XABIER AKIZU		100,00 €
TALLERRAK EGURRA XABIER ARRIETA		90,00 €
ALDABE POSTUA		50,00 €
IMAUDIO MIKROFOOA		48,40 €
OA KULTUR ELKARTEA EDARIAK		119,16 €
HITZA		544,50 €
GOIERRI TB		384,78 €
SEGURA IRRATIA		100,01 €
EUSKADI IRRATIA		302,50 €
BEBIDAS UGALDE		343,50 €
ONDARRE BURGER , XOLOMO ETA TXORISOA		378,94 €
ZEGAMA OKINDEGIA 100 BARRAK		145,60 €
PATATAK 2 KUTXA		80,00 €
PLATERAK ETA ABAR		114,30 €
PANELAK (ETXEBIZITZA POSTURAKO)		605,00 €
	5.516,15 €	4.926,69 €
EMAITZAK	589,46 €	

- **Lumagorriren 25.urteurrena**

Azaroaren 16an Lumagorrik 25 urte bete zituen. Lumagorrik, auzokoak, Zeraingo langileak, Zeraingo ekoizleak, Udaleko langileak, Tokiko Garapena batzordeko arduraduna eta alkatea gonbidatu zituen ospakizun ekitaldira.

Horrez gain, asmoa dute herri mailan ere elkarlanean antolatutako ospakizun bat egiteko.



- **Fundazioa**

Xaguen lagunekin bilera bat egin zen hauek aurkeztutako kezka batzuen ondorioz. Kezka hauek, etxebizitza sozialen proiektuak Fundazioko bazkideei ekar liezazkiekeen ondorioen inguruan ziren. Egoera argituta geratu da beraien ordezkariarekin egin diren azken bileretan.

Jarraian, aurreko bileretan eskatu bezala, diru kontuak aurkezten ditugu:

- 2015ean galerekin itxi zen urtea (-10.533,02 €)
- 2016ean galerekin itxi zen urtea (-3.494,35 €)
- 2017an positiboan itxi zen urtea (2.503,75 €)
- 2018ko aurreikuspena positiboan bukatzea da.

Atxikituta doaz diru kontuen taulak.

PERDIDAS Y GANANCIAS PYMES

Desde Enero Hasta Diciembre del Ejercicio 2016 En €

Nombre de la Cuenta	Ejercicio 2016	Ejercicio 2015
1. Importe neto de la cifra de negocios	13.787,68	12.957,48
70510000 PATRONOAK -BAZKIDETZA APORTAZIOA-	6.590,00	1.610,00
70530000 AZOKA (PUBLIZITATEA...)	1.206,20	5.356,00
70540000 ONDAREAREN KUDEAKETA	5.991,48	5.991,48
4. Aprovisionamientos	-118,88	0,00
60000000 Compra de Mercaderías	-118,88	0,00
5.- Otros ingresos de explotación	17.718,00	17.600,00
74000000 SUBENTZIO OFIZIALAK ESPLOTAZIORAKO	17.718,00	17.600,00
7. Otros gastos de explotación	-33.607,99	-39.841,98
62300000 PROF INDEP ZERBITZUAK	-1.552,85	-1.482,26
62600000 Servicios Bancarios y Similares	-25,91	-51,65
62900000 ZENBAIT ZERBITZU	-4.343,00	0,00
62910000 TURISMOA SUSTATZEA	-24.663,47	-18.958,90
62940000 AZOKA	-2.852,18	-5.708,03
62990000 BESTELAKOAK	-170,58	-13.350,74
62990003 PATRONOAK	0,00	-290,40
8. Amortización del inmovilizado	-1.232,00	-1.232,00
68000000 Amortización Inmoviliz. Intangible	-1.232,00	-1.232,00
A) RESULTADO DE EXPLOTACION (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11+12)	-3.453,19	-10.516,50
13. Ingresos financieros	-41,16	0,00
b) Otros ingresos financieros	-41,16	0,00
76900000 Ingresos por diferencias redondeo e	-21,16	0,00
76900001 OTROS INGRESOS FINANCIEROS	-20,00	0,00
14. Gastos financieros	0,00	-16,52
66230000 Intereses deudas entidades crédito	0,00	-16,52
B) RESULTADO FINANCIERO (13+14+15+16+17+18)	-41,16	-16,52
C) RESULTADO ANTES DE IMPUESTOS (A+B)	-3.494,35	-10.533,02
D) RESULTADO DEL EJERCICIO (C+19)	-3.494,35	-10.533,02

PERDIDAS Y GANANCIAS PYMES

Desde Enero Hasta Diciembre del Ejercicio 2017 En €

Nombre de la Cuenta		Ejercicio 2017
1. Importe neto de la cifra de negocios		8.984,66
70510000	PATRONOAK -BAZKIDETZA APORTAZIOA-	1.470,00
70530000	AZOKA (PUBLIZITATEA...)	1.523,18
70540000	ONDAREAREN KUDEAKETA	5.991,48
5.- Otros ingresos de explotación		23.950,00
74000000	SUBENTZIO OFIZIALAK ESPLOTAZIORAKO	23.950,00
7. Otros gastos de explotación		-28.920,72
62300000	PROF INDEP ZERBITZUAK	-1.725,00
62700000	Publicidad, Propaganda, RRPP	-372,08
62900000	ZENBAIT ZERBITZU	-731,63
62910000	TURISMOA SUSTATZEA	-23.319,93
62940000	AZOKA	-2.732,45
63410000	Ajuste negativos en I.V.A de circul	-39,63
8. Amortización del inmovilizado		-1.232,00
68000000	Amortización Inmoviliz. Intangible	-1.232,00
A) RESULTADO DE EXPLOTACION (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11+12)		2.781,94
B) RESULTADO FINANCIERO (13+14+15+16+17+18)		0,00
C) RESULTADO ANTES DE IMPUESTOS (A+B)		2.781,94
19. Impuestos sobre beneficios		-278,19
63000000	Impuestos sobre Beneficios	-278,19
D) RESULTADO DEL EJERCICIO (C+19)		2.503,75